



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**


hitza



Asteartea
2008-12-23

VI. URTEA 1.591. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



E. EZEIZA

ANASTASIA LEUNDA ARTISAUA

«Bitxiak egiten eta arropak josten asko gozatzen dut»

ALBIZTUR Berak egiten dituen artilezko soineko eta bitxiekin ibiltzen da herriz herri azoketan; berarentzat denbora-pasa dela dio »3

Manifestazioa egingo dute Goar Jimenezi elkartasuna adierazteko

IBARRA Hilaren 29an espetxeratuko dute, eta egun horretan egingo dute manifestazioa, 19:30ean; ekitaldi gehiago ere egingo dituzte »6

Izan duten giro ona nabarmendu dute Frontenis Txapelketako antolatzaileek

BERROBI Bikotetan Oliveira-Rodrigo eta Arantzazu-Mireia eta banaka Goitia izan dira aurtengo irabazleak »6

Jon Tecedorren omenaldian parte hartutakoei eskerrak eman die Danenak

ZIZURKIL Hilaren 13an egin zioten omenaldia; 100 pultsulari eta pultsulari ohiek hartu zuten parte »4

GAUR LIKIDAZIOKO
azken eguna!
Zorionak eta Urte Berri on!
Altzin kalea 3 behea
VILLABONA
Tel.: 943 69 15 44

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

E **Elkarrizketa****ANASTASIA LEUNDA** › Artisaua

Albiztur » Emakume berezia dela uste dute gehienek bere itxuragatik; izan ere, berak egindako artilezko soineko eta bitxiekin ibiltzen da herriz herri, azoketan.

ESTI EZEIZA

Urteak aurrera baldin badoaz ere, sasoi eta indar berarekin jarraitzen du Anastasia Leundak (Albiztur, 1926). Ezagun bati laguntzearren duela hamar urte hasi zen artilezko jantziak egiten, eta egun, oraindik ere horretan jarraitzen du. Afizio berezi honen eskutik ospetsu egin da inguruan. Hala ere, hau, berarentzat denbora pasa besterik ez da. Jantziak ez ezik, bitxiak ere egiten ditu. Honetarako, beti, balio ez duten ezkur edo haziak erabiltzen ditu. Hau da, beste ezertarako balio ez dutenak.

Noiz hasi zinen ezkurrekin bitxiak egiten?

Duela lau urte hasi nintzen, senarra hil zitzaudanean. Bere heriotzaren ostean, oso gaizki geratu nintzen, niretzat dena amaitu zela

Aurtengo negurako emakumezkoentzako kulero berezi batzuk egin ditut, behean, zuloarekin**Nire nahia da, hildakoan, hileta elizkizunean, nik egindako bitxiak jende artean banatzea da**

uste nuen. Behin Donostiara nindoala, tren geltokiaren ondoan zegoen zuhaitz baten azpian, ezkur ugari zeudela ikusi nuen. Hauek, zanpatuta zeuden, baina nik, eskuetan hartu eta etxera ekarri nintzen. Ondoren, hauekin lepokobat egin nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Honela, jarri nuen, eta jendea ondo geratzen zitzaidala esaten hasi zitzaidan, eta baita horrelakoak egiteko eskatzen ere.

Lehendabiziko horretatik abiatuta, orain, milaka dituzu.

Denbora-pasa polita iruditu zitzaidan, gainera trebatzeko bide egokia da. Hala, orain, kaxa mordo bat ditut lepoko, eskumuturreko eta belarrirakoz beteta.

Baina lehenagotik ere beste eskulan batzuk egiten zenituen.

Bai, ardi ilearekin artilea egiten hasi nintzen duela hamar urte inguru, eta hainbat jantzi egin ditut honekin.

Horretan ere kasualitatez hasi zinen.

Nire senarrak lagun bat bazuen artzaina, eta honek mesede bat eskatu zidan. Neguan hotz handia jasaten zuela esan zidan, eta galtzerdi batzuk josteko mesedez. Honetarako, bere ardien ilea eman zidan.



ESTI EZEIZA

«Asko gozatzen dut bitxiak egiten eta arropak josten»

Baina nik ez nekien artilea egiten, eta ez nekien nola josi ahal izango nituen. Baina, senarrak bazekin, soldadutzan ikasi baitzuen, eta erakutsi zidan. Hala, artilea egiten ikasi nuen eta galtzerdiak egin nizekion.

Gerora, hainbat eta hainbat jantzi egin dituzu, eta arrakasta izan dute.

Aiton hari galtzerdiak egin ondoren, neronentzat egiten hasi nintzen, baita senararentzat ere. Baina ez galtzerdiak bakarrik, soinekoak, kuleroak, galtzontziloak, oinetakoak, jertseak... Orduan, ohartu nintzen jantzi horiek balioa bazutela, eta saltzen jartzeko modukoak zirela. Hala, euskal jantziak eta artisau lanak saltzen zituzten denda batera joan nintzen, eta batzuk uzteko eskatu zidaten.

Zergatik uste duzu izan dutela arrakasta zure jantziekin?

Bakarrak eta bereziak direlako. Zenbait lagun etorri izan zaizkit

esanaz, ez dutela arropa benetan berorik lortzen, eta artilezkoak eskatuz. Hauek negurako oso gozoko dira, eta kanpoan ibili behar dutenentzat, egokia.

Zuretzat, jostea eta bitxiak egitea, denbora-pasa da.

Bai, askotan, oinez, osteratxo bat eman ari naizen bitartean, artilea egiten aritzen naiz. Asko gozatzen dut hauek eginez. Jendeak esaten dit zertarako ditudan horrenbeste jantzi eta bitxi, baina nik gustuko dut lan hori.

Zure jantziak eta bitxiak azoketan aurki daitezke orain.

Bai, horrenbeste arropa nuela ikusita, azoketan saltzea erabaki nuen. Honetarako, Hernanin egiten denean parte hartzeko asmoz, antolatzaileekin harremanetan jarri nintzen. Baina honek, hasiera batean, esan zidan, dagoeneko prest zegoela dena, eta ez zegoela niretzako tokirik. Baina azkenean, lekutxo bat egin zidaten. Orduan,

nik egindako jantziak soinean jarri, eta postu bat jarri nuen.

Hasieran, senarra bera ere lotsatu egiten zen jantzeko modu horrengatik.

Lehendabiziko aldi horretan, azokara eraman zidan, baina segituan alde egin zuen. Ondoren, berriro mezaren ondoren hurbildu ziren ni ikustera senideekin, baina alde egin zuten segituan lotsatuta. Dena den, iluntzean etorri zen berriro nire bila. Gauza bera egin zuen hurrengoetan, eraman eta ekarri besterik ez zidan egiten. Baina batean, Gatzagatik gonbidatu zidaten, eta hara bakarrik ez nuen joan nahi. Aitzitik, azkenean, senarra konbentzitzea lortu nuen, eta bera ere, nire moduan jantzieta joan zen. Praka berriak egin nizekion apropos egun horretarako. Horren ondo igaro zuen, hurrengoetan ere nirekin etorri zela.

Nondik datorriz duzu gauza hauek egiteko sena eta abilezia?

Sei anai-arreba baditut baina beste inork ez du horrelakorik egiten.

Etxean artisau gehiago ere badituzu.

Semeak ordulariak egiten ditu egurrarekin, oso politik gainera. Bilobak berriz, 6 urte ditu, eta dagoeneko josten badaki.

Non aurkitzen dituzu bitxiak egiteko hazi eta ezkurak?

Dagoeneko ezagutzen ditut inguruko mendiak eta badakit zer aurkituko dudan leku bakoitzean. Ia egunero joaten naiz itzuli bat ematera, eta beti ekartzen dut zer bait.

Beti izan al zara bitxi zalea?

Hamar urte nituenerako egin nuen nire lehen lepoko eta burukoak. Orduan ere, alboko baserrietan baziren aberatsak, eta hauek lepokoak, eskumuturrekoak... bazituzten. Hala, ni gutxiago ez nintzelako, loreekin egin nuen nire lehen lepokoa. Baita burukoak ere.

Nondik lortzen duzu ardi ilea?

Horretan ez dago arazorik. Nik

inoiz ez dut ordaintzen ezer. Hartzainek hau soberan izaten dute, eta nik eramatea nahi izaten dute. **Istorio berezi bat ere baduzu jantzi batekin.**

Zortzi kolore ezberdinetako ardi ilearekin egin nituen behin jertse eta galtzak, eta hauek behin ere ez nituela salduko esaten nuen. Baina behin, Donostian, San Tomaseko azokan nengoela, neskato bat etorri zitzaidan zenbat balio zuen galdezka. Orduan, nik, esateagatik, 50.000 pezeta balio zuela esan nion. Izan ere, uste nuen, ez zela gai izango hori ordaintzeko. Baina, poltsikotik dirua atera eta jertsea hartzen hasi zen. Orduan, nik, ez nuela saldu nahi esan nion, baina hark izurratzeko erantzun, eta soinekoa hartuta alde egin zuen. Beste batean, saiatu nintzen antzeko bat egiten, baina ez nuen lortu. Bigarren hau Hernaniko udaletxean dago.

Jendea topatu izan al duzu kalean, zure arropak soinean jarrita?

Bai, hemen alboko neska batek baditu nire arropak.

Ardi ile batetik bestera diferentzia handia al dago?

Bai, esaterako, Bizkaikoa goxoa goa da, baina motzagoa. Dena den, nabari da diferentzia.

Negu honetarako jantzi berri bat egin duzu.

Joan den urterako gizonezkoentzako galtzontzijoak josi nituen, eta arrakasta handia izan zuten. Aurten berriz, emakumeentzako kulero luzeak egin ditut. Hauek artilez daude eginak eta behealdean zulotxo bat dute pixa egin ahal izateko. Ziurrenik hauek ere zeresana emango dute, eta ezagunak egingo dira.

Bitxiei dagokionean, nahi berezi bat daukazula esan daiteke.

Bai, askotan esan izan diet inguruko, nire nahia dela, ni hiltzen naizenean, nik egindako bitxi guztiak, hiletara joan diren artean banatzeara. Elizkizun alaia izatea nahi dut, festa modukoa. Eta hori gauzatzen bada, nire amets nagusienetako bat beteta geratuko da.




Soinekoak, titi zorroak, galtzerdiak... egiten ditu artilearekin. E. EZEIZA



Sei urte besterik ez baditu ere, bere iloba Julenek badaki josten. E. EZEIZA




Oinetakoak ere egiten ditu artilearekin. E. EZEIZA



Koilare ugari ditu etxean; artilea honela egiten du; semeak erlojuak egiten ditu. E. EZEIZA



Zuhaitzen hazi eta ezkurrak, brontzezko alanbreari lotuta egiten ditu belarritakoak. E. EZEIZA



Kolore ezberdinetakoa hazi eta ezkurrekin egiten ditu bitxiak. E. EZEIZA



Pultsulariak eta harri-jasotzaileak, Tecedorren alarguna eta gurasoeekin. HITZA

Altxaldi sinbolikoa Tecedorren omenez

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan Jon Tecedor Aguinaga zenaren omenaldia egin zuten Kirol Astearren baitan hilaren 13an eta bertan 100 pultsulari eta pultsulari ohiek parte hartu zuten altxaldi sinboliko batean. Bere omenez prestatu zen argazki-liburuan 150 lagun baino gehiagok elkartzasuna adierazi nahi izan zioten familiari liburuan sinatu. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende asko joan zen omenaldi hunkigarri horretara.

Danena A taldeko pultsulariek parte hartu zuen arratsaldeko prestatuta zegoen ekitaldian eta Ekaitz Kortajarenak lehenengo postua lortu zuen. Pultsulariaz gain, harri-jasotzaileek ere parte hartu zuten. Telleria anaiek, Urztzik, Iraitzek, eta Beñatek, aita Luis eta osaba Jesusen laguntzarekin, oso ekitaldi polita egin zuten joan ziren 250 ikusleei. Aimar Irigoienek, Tecedorren lagunak, erakustaldi polita eman zuen 200 kiloko

errektangularrari 3 jasoaldi ematen eta 2 minutuko txanda batean 175 kiloko kopa 12 aldiz altxa zuen, berak duen marka baino bat gutxiago egin. Pultsulariek bukar emateko bolarekin emanaldi bat egin zuten. Euskal Herriko Selektzioaren aldeko elkartzasuna adierazteko ikusleak eta parte-hartzaileak argazkirako elkartzu ziren. Danenako arduraduna den Batis Kortajarenak eskerrik beroenak luzatu dizkie Jon Tecedorren omenaldian parte hartzen eta antolatzen ari diren guztiei.

Bestalde, Danena taldeko pultsulariek asteburu honetan parte hartu dute Espainako Txapelketan. A taldean Iker Hernandez, Ekaitz Kortajarena, Jon Sasiain, Kepa Ortega, Javier Celaya, Igor Sasiain, Francisco Cruz eta Teddy Martinez ari dira. B taldean, Javier Aranburu, Luis F. Celeya, Jon Aranburu, Koldo Urruburu, Mikel Quintana, Jose A. Sola, Carlos Castillo eta Francisco Gonzalez.

Oinkarik Kantina irekiko du Gabonetan

ERREDAKZIOA

Oinkari Dantza Taldeak Kantina irekiko du Eguberrietan Olaederri kiroldegiko kafetegian. Kantinan pintxo eta edariak zerbitzatzear gain, hainbat ekitaldi antolatu dituzte hilaren 24tik 31ra. Ekitaldi horien artean bat oso be-

rezia, hilaren 26an egingo dute *Gure Txokoa Oroitu* jaia izango da. 23:00etatik aurrera lehengo musikaz gozatzeko aukera izango dute. Aurretik giroa berotzen joatzeko, afaria antolatu dute Kantinan guztiei irekia. Izena emateko 630 017938 zenbakira deitu behar da.

Laburrak

Altzari-bilketaren egunak aldatu dituzte Gabonetan

HONDAKINAK ● Datozen jaiegunak direla eta, altzarien bilketaren eguna aldatu egingo da Villabonan eta Ibarren. Horrela bi aste hauetan, hilaren 26an, ostirala, eta urtarillaren 2an, ostirala, izango da. 20:00etatik aurrera herritarrek altzariak atera ditzakete.

Bonberenea Txarangaren disko berriaren aurkezpena

TOLOSA ● Bonberenean hainbat ekitaldi izango dituzte egunotan. Gaur, esaterako, 19:00etan Bonberenea Txarangak *Rocka ta urrezko komona* bere disko berria aurkeztuko du. 21:00etan afaria izango dute urteurren eguna ospatzeko. 00:00etan su artifizialak izango dituzte.

Musika Bandaren Gabon Gaueko kontzertua, bihar

TOLOSA ● Tolosako Musika Bandak ohiko Gabon Gaueko kontzertua joko du bihar, 12:00etan. Zerkautsian egingo dute musikariak kontzertua.

Oria elkarteko zozketaren zenbaki sarituak

VILLABONA ● Oria merkatarien elkartek antolatu duen Gabonetako zozketaren zenbaki sarituak atera dituzte. Saskiaren zenbakia 6.830 da. 200 euroko txekoa ondorengo zenbakientzat izango da: 10.111, 10.811, 6.178, 10.000 eta 4.539. Zenbaki sarituak dituztenek ondorengo telefono zenbakietara deitu behar dute: 943 69 42 61 edo 677 19 50 37.

Etxebizitzaren zozketarako zerrendak ikusgai

VILLABONA ● Udaletxeko iragarki taulan jendearen agirian daude La Salvadora gunean Erregimen Orokorreko 27 etxebizitzaren zozketarako onartu eta baztertuak zerrendak. Zerrenda horiek hainabost lagunetan erakusten dira, interesatu guztiek erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten. Erreklamazioak jartzeko gehienezko epea urtarillaren 12a; 14:00ak arte, izango da epea.

Eguberrietan kontuan hartzeko ekitaldiak

ERREDAKZIOA

Anoetan eta Iruran egitarau zaballarekin jarraitzen dute Eguberrietan. Gaur Iruran, 17:00etan Gaztelekua apaingotuko dute Eguberrietako ikurrekin eta merienda. Etzi, 11:00etan, Eguberri eguneko meza nagusia. Hilaren 26an, 17:30ean, Trinketean Korri eta Xalto pailazo taldearen *Kantari* ikuskizuna. 17:00etan, Gaztelekuan, 12 eta 17 urte bitartekoentzat Olentzeroren opariak irekitzea eta bingoa. 22:30ean, Trinketean *Ogirik gabe etorri zen semea* antzezlan. Hilaren 28an, 11:00etan meza abestia. Ondoren, Eguberrietako abestiak

eta Aita Donostia abesbatzaren emanaldia. Hilaren 29an, 17:30ean jubilatuta eta haurren arteko jaia Zaharren Biltokian. 17:00etan, Gaztelekuan, kandelagintza ikastaroa. Anoetari dagokionez, bihar Txolarre irratian 8. urtemuga. *Tolosaldeko ahotsa* saio berezia egingo dute eta 12:00etatik aurrera, hamaiketako irratira joaten denarentzat. Hilaren 25ean, Anoetako txistulari taldearen kalejira, 12:00etan. Hilaren 29an, irteera Txuri Urdinera, 11:00etatik 14:00etan. 18:00etan, kiroldegian, diabolarekin jolasean Aimar Alonsorekin.



Finaletan parte hartu zuten pilotariak eta antolatzaileak. HITZA

Behar-Zanakoaren eskuzko final «arrakastatsuak»

ERREDAKZIOA

Villabonako Behar-Zana elkartearen Gabon torneoko final «arrakastatsuak» jokatu berri dira Amasako pilotalekuan. Guztira 55 pilotarik hartu dute parte. Txikienean mailan, prebenjaminetan (6-7 urte) Enaitz Etxeberriak eta Lander Arostegik irabazi zuten torneo eta bigarrenak Beñat Intza eta Julen Jauregi izan ziren. Benjaminetan Gorki Tormo zizurkildarra eta Unai Redondo izan ziren txak-

peldunak, finalean Axier Ugarte-mendia eta Axier Ugartemendia II alkizarra mendean hartuta. Julen Aizpurua asteasuarra eta Eneko Zubiaurre alkizarra jokatu zuten buruz buru alebin mailan. Partida estua jokatu ondoren Alkizar pilotariak irabazi zuen torneo.

Azken partidaren infantilek jokatu zuten. Jon Erasun zizurkildarra eta Eneko Alkorta irabazi zuten, Aitor Ormazabal eta Aitor Irisarri adunarra arerio zituztela.

txokoa
h

5 sarrera pare

zozketan emanaldi bakoitzerako, deitu eta eskuratul

Abenduak
27
Larunbata
Ibarren
eta
Abenduak
29
Astelehena
Alegian



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratul

BRUESA GBC
Unicaja Malaga

IGANDEA

ABENDUAK 28-12:30

ILLUNBE



Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratul



Bertso-saioa

Igandea • Abenduak 28 • 17:30ean
Ibarra Belabietan kiroldegian

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrerarako dena eta denak prest

Gizartea » Bihar mendietatik jaitsiko dira, iluntze aldera gehienetan eta herri gehienak bisitatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Olentzero, Olentzaro, Orentzaro badator eta herri ia guztietan azalduko da ikazkina, pipa hortzetan duela. Leku batzuetara astoz, besetan oinez gerturatuko da herritarrengana... Gainera, gero eta gehiago gara Mari Domingi azaltzen hasi da: denbora duenean Mari Do-

mingi, Olentzeroren emazteak, Olentzerori lagunduko dio opariak banatzen.

Gauza onen garaia dela esan izan da Olentzero hitzaren eta jatorriari begira jartzen garenean. XVII. mendean dagoeneko, Olentzero aritzen zen neguko solstizioa iragartzen, esaten dutenez, Euskal Herriko azken jentila zen.

Beste ideia edo hipotesia oles egitea, agurtzea, alegia, gabonetako kopla askotan agertzen dena da. Egia da, asko gure herrietan eskean ateratzen direla, oles eginez. Gero eta ohikoagoa da ere artzain andrez eta gizonez janztea, zapi, txapela eta guzti.



Ostiralean izan zen Olentzero Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolan. HITZA

Berrikuntza txiki batzuk

Alegian aurtan berrikuntza txiki bat dago: Dantzari Taldeak ere parte hartuko du eta lehen aldiz Mari Domingik bertara hurbilduko dela esan die herritarrei. Noski,

bertako biztanleak artzain andrez eta artzain gizez jantzita agertzea nahiago dute Olentzerok eta Mari Domingik.

Tolosako obrak direla eta, ibilbidea aldatu egingo dute. Aurtan San

Joanetik abiatuko dira eta Soldadu kalera joango dira.

Oparirik gabere, haur askoren-tzat Olentzaro, Orentzaro edo Olentzero ikustea harrigarria da, are gehiago Mari Domingirekin.

» EGOBERRI BEZPERA, HERRIZ HERRI

ADUNA

■ **08:00.** Herritarrek plazan elkartuko dira baserriz-baserri kantatzeko. Ondoren bazkaria egingo dute Uztartzan.

ALBITZUR

■ **Egunean zehar.** Eskean baserriz baserri eta etxez etxe ariko dira bi talde. Tartean, jubilatuei opari bana emango zaie.

■ **19:00.** Denak plazan bilduko dira eta arkupean Olentzero izango da. Bertan haurrek idatzitako gutunak irakurriko dituzte. Goxokiak haurrei banatuko zaizkie.

ALEGIA

■ **11:00.** San Juan eskolako ikasleak abesten aterako dira kaleetan zehar, Larraitx auzotik hasita.

■ **17:30.** Aurtan Olentzeroren etorrerari beste ukitu bat emango diote, indartu edo osatu nahian. Olentzero eta Mari Domingi hurbilduko dira. Lehenengo aldiz, Txintxarri Abesbatzak eta Dantza Taldeak parte hartuko dute. Herritar guzti-guztiak animatu nahi dituzte artzain andrez jantzita agertzeko.

ALKIZA

■ **09:00.** Olentzeroren bisita eskolan. Ondoren herri guztian zehar eskolakoak kantari ariko dira. Batetik bestera joateko kamioi batean joango dira.

AMEZKETA

■ **09:00.** Euskal preso eta errefuxiatuen alde eskean ariko dira, abesten, baserriz baserri.

■ **16:00.** Ugartetik aterata herrigunera joango dira eskean, euskal preso eta errefuxiatuen alde.

■ **09:30.** LHko ikasleak Ugartetik aterako dira eta abesten joango dira. Amezketako sarreran beste

haurrekin elkartuko dira (eskolak eta gurasoek antolatuta).

ANOETA

■ **18:00.** Olentzero eta Mari Domingi Isastitik aterako dira, Gazte Asanbladaren eta Loatzo Musika Eskolako ikasleek alaiturik. Plazan ongi-eterria egingo zaio: Gazte Asanbladakoek gutuna irakurriko dute, Udai Dantza Eskolako ikasleek dantza egingo dute, eta denon artean kanta bat abestuko dute. Ondoren Olentzerok eta Mari Domingik goxokiak banatuko dituzte hurbiltzen diren ume eta gaztetxo-en artean.

ARESO

■ **10:00.** Etxez etxe aterako dira kantari eta aterako diruarekin haurrak jasoko dituzte (besoetan hartu).

■ **18:00.** Mañenea etxeko atarira Olentzero iritsiko da.

ASTEASU

■ **10:00.** Eskolako hirugarren zikloko ikasleak aterako dira.

■ **11:00.** Beste ikasleak aterako dira.

■ **12:00.** Frontoian elkartuko dira guztiak Olentzerori gutuna emateko eta opariak jasotzeko.

BEDAIO

■ **15:00.** Gabon kopla zaharrak abesteko bilduko dira eta baserriz baserri joango dira, urte berri on bat ospatzu.

BERASTEGI

■ **09:00.** Plazatik kantuan hasiko dira eta eskean aterako dira.

■ **13:30.** Urepel elkartean bazkaria. Bakoitzak bere janaria eraman beharko du eta kafea, postrea eta edaria Guraso Elkarteak jarriko du.

■ **15:00.** Kantu saioa (guztia Guraso elkarteak antolatu du).

ELDUAIN

■ **14:00.** Plazan elkartuko dira eta baserriz baserri eskean aterako dira. Jendea artzain andrez jantzita joatea eskatu dute antolatzaileek.

GAZTELU

■ **18:30.** Menditik jaitsiko da Olentzero eta herrira iritsiko da, 19:00ak aldera. Opariak eskolan banatuko ditu.

IBARRA

■ **10:00.** Azkue auzotik aterako dira kantari eta herrian zehar ariko dira Uzturpe ikastolak antolatuta.

■ **12:00.** Plazara iritsiko dira bukatuz, eta gaztainak izango dira.

■ **19:00.** Olentzero herrira jaitsi egingo da.

HERNIALDE

■ **09:00.** Hernialdeko Bentan elkartuko dira herritarrek eta baserriz baserri ibiliko dira abesten.

■ **14:00.** Elkarte bazkalduko dute eta ondoren goiko baserrietan ariko dira kantari.

■ **19:00.** Olentzeroren etorrera eta opari banaketa.

IKAZTEGIETA

■ **08:30.** Kiroldegiko aparkalekutik aterako dira eta kantuan ibiliko dira lehenik baserriz baserri, eta gero herri gunean (Amnistiaren aldeko Olentzero). 15:00ak aldera bukatuko dute.

■ **18:00.** Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Opariak banatuko dituzte. Astoak ere ekarriko dituzte. Gaztain erreak izango dira.

IRURA

■ **12:00.** Gazte Alaiak elkartean:

hamaiketako abesten aritutakoentzat.

■ **18:30.** San Migel Plazan jaiotza biziduna, Olentzeroren etorrera gabon kantez alaitua eta opari banaketa.

LARRAUL

■ **15:00.** Herritarrek plazan elkartuko dira eta baserriz baserri ibiliko dira kantuan.

LEITZA

■ **12:00.** Eskolatik umeak jantzita aterako dira, Olentzerorekin. Herri-rik buelta egin ondoren, plazan bilduko dira. Olentzeroren laguntzaileek eskutitzak jasoko dituzte eta goxokiak banatuko dituzte.

■ **18:30.** Gaztelunetik herrira Olentzero etorriko da.

■ **Ondoren.** Bertso eskolako en harrra jasoko du eta dantzariak ere izanen dira. Asketa abesbatzak eta txistulariek herrian buelta egingo dute.

ORENDAIN

■ **09:00.** Plazan elkartuko dira eta koplak eta gabon kanteak eskainiko dituzte baserriz baserri.

TOLOSA

■ **Ibilbidea.** Olentzero menditik etorriko da, (Montezkuetik). Haurrak San Frantzisko elizaren atzean bilduko dira (San Juan kalean) Olentzerorekin batera. Ibilbidea: San Juan, Soldadu kalea, Trianguloa, Korreo, Plaza Berria, kale Nagusia, Plaza zaharra, Zerkausia.

■ **17:00.** San Juan kalean bilduko dira parte hartu behar duten haurrak.

■ **17:30.** Hasiera, kalejira trikitilari-rikin berduraz plazara.

■ **17:35.** Trianguloko arkupean Olentzerori abestuko zaio.

■ **17:50.** Plaza Berrian txalapartari-ek etorrera iragarriko dute, Uda-berriko haurrek dantza egingo dute, San Bernardo eta kazkabar-rrako haurrak bertsoak abestuko dituzte.

■ **18:15.** Plaza Zaharrean: Uda-berriko haurrek Olentzerori agurra dantzatuko diote Zerkausian: haurrek Olentzerorekin egoteko aukera izango dute.

■ **18:25.** Zerkausian. Antolatzaile-ak: Gazte guneko partaideak diren San Bernardo Eskaut-gia elkartea eta Kazkabarra taldeak eta Uda-berri dantza taldea.

URKIZU

■ **18:00.** Olentzeroren jaitsiera.

VILLABONA

■ **17:45.** Olentzerori eta Mari Domingiri ongetorria Otsabin (meriendatxoarekin).

■ **Ondoren.** Olentzeroren jaitsiera. Jesusen Bihotza ikastolak eta bertako guraso elkartearen jaiotza biziduna 11:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era Zentroko eraikuntza eta elizaren artean.

■ **10:00.** Jesusen Bihotzako LHko 3, 4 eta 5. mailak Zentrotik irtengo dira eta HH eta LHko 1. eta 2. mailak 10:30ean Txermindik irtengo dira.

■ **11:30.** Denak jaiotza bizidunaren aurrean elkartuko dira abesteko eta hortik aurrerako ibilbidea batera egiteko.

ZIZURKIL

■ **10:00.** San Millan ikastetxe-ko umeak baserrietan abestuko dute eta 10:00etan hasita Pedro Mari Otaño eta Jesusen Bihotza Ikastolako umeek Elbarrena auzoa alaituko dute. Ondoren, Urkamen-di elkartean hamaiketako.



Presoen senide zein preso-ohiak ere gerturatu ziren Etixeraten agerraldira. R. CALVO

Goar Jimenez hilaren 29an espetxeratuko dutela-eta manifestaldia Ibarra

Ibarra » Etixeraten agerraldian urtarilaren 3an Bilbon izango den nazio manifestaziora joateko deia luzatu zuten.

REBEKA CALVO

Etixeratek euskal errepresaliatu politikoen senideen elkarteak euskal preso, errepresaliatu eta iheslari politikoei bizi duten egoerasalatu zuen, beste behin ere, Ibarra eskainitako prentsaurrekoan. Bertan, batetik, Etixeratek orain gutxi argitaratutako *Biziaritako zigorrak ez! Heriotza zigorrak ez!* manifestuari 2.000 lagun baino gehiagok eman dutela euren atxikimendua argitu zuten eta, bestetik, Goar Jimenez herriko gaztea hilaren 29an espetxeratuko dutela agertu zuten. Zentzu honetan, espetxeratuko duten egunean bertan 19:30ean Ibarra manifestazioa



Larunbatean sinadura bilketa egin zuten Goar Jimenezen alde. A. IMAZ

egin dutela ere argitu zuten. Gazteari euren elkartasuna agertzeko bestelako ekimenak ere egingo dituztela esan zuten, horietako lehena pasa den larunbatean egindako sinadura bilketa.

Urtarrilaren 3an Bilbon

Era berean, datorren urtarilaren 3an Etixeratek Bilbon antolatutako nazio manifestaziora joateko deia ere luzatu zuten, izan ere, «gizartea zutitzeko eta eskubideak aldarrikatzeko garaia da. Etxean eta bizirik nahi ditugu!», esan zuten.

Horiek horrela, Tolosaldeko hainbat eragilek, Amnistiaren Al-

deko Mugimenduak, senideak eta beste zenbait lagun gehiagori manifestuari azaldutako elkartasuna ere eskertu nahi izan zien Etixeratek. Izan ere, «lana egiteko» unea dela gogoratu zuten eta Jose Ramon Martinez de la Fuente eta Jose Mari Perez euskal presoek *Parrot doktrina* delakoa aplikatuta, hurrenez hurren, 2020 eta 2017 arte luzatu dietela zigorra ere gogoratu zuten.

«Bukatzeke, euskal jendarteari herriaren inplikazioarekin eta lanarekin soilik lortuko dugula gure helburuetara iristea esan nahi diogu», gaineratu zuten.



Frontenis Txapelketako finala

BERROBI » Bukatu da aurtengo Berrobiko Frontenis Txapelketa. Giro ona egon dela argitu dute antolatzaileek eta baita aurreikusi bezala joan dela guztia, izan ere «urtero antolatzen dugun txapelketa denez, nahiko lotuta egoten da guztia». Finala larunbatean izan zen eta hauek izan dira txapel-dunak: mutilen bikoteen sailean Manu Oliveirak eta Daniel Rodrigok irabazi zuten, nesketan, berriz, Arantza Zuk eta Mireiak eta azken sailean, mutilen buruz burukoan, alegia, Mikel Goitia izan zen garaile. HITZA

Programazio berezia hilaren 30era arte

Ibarra » 'Gabonetako euskal ipuinak' ipuin kontaketa izango da gaur, 11:30ean, Kultur Etxean, Ixabel Milleten eskutik.

henean, hilak 29, BehiBis taldearen *Rosi erosi* antzerki-emanaldia izango da 11:30ean Kultur Etxean eta hilaren 30ean Txalo taldeak *Magia teitatueta* lana eskainiko dute ordu eta leku berean.

Markako gauzak gustuko

Rosi Erosi lanean Rosi gaztea da protagonista; markako gauzak erostea du gustuko eta beste guztia mespretxatzen du; bere lagun Ion Kepa barne, *Magia teitatueta* antzerkian aldiz, galdera hauxe erantzuten saiatuko dira: zer ezkutatzen da teitatueta gau izartsuetan? Azken lan honen zuzendaria Begoña Bilbao da eta aktoreak, berriz, Iraitz Lizarraga, Asier Kidam eta Jorge Santos.

ERREDAKZIOA

Ibarra Kultur eta Gazteria Batzordeak Eguberrietako haur eta gaztetxoek zuzendutako programazio berezia antolatu du. Atzo bertan hasi zen egun osoan zehar Belabietan izandako haurrentzako jolas-parkearekin.

Gaur, berriz, Ixabel Milleten *Gabonetako euskal ipuinak* ipuin-kontaketa saioa izango da Kultur Etxean 11:30ean. Datorren astele-

Laburrak

Bosgarren egin zuen Auzolan taldeak

IBARRA » Astigarra soka tirako Auzolan taldeak, non Ibarako Lander Oterminek hartzen duen parte, bosgarren geratu zen larunbatean lgetdon izan zen Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketako 300 eta 250 kiloko azken saioan. Gizonezkoetan Amañur B taldeak azken txandan menderatu zuen Berrioar A taldea, finaleko tiraldi guztia ere irabazi zituelarik. Emakumezkoen 250 kiloko bigarren eta azken jardunaldian, berriz, Badiotzek erabateko nagusitasuna erakutsi zuen eta azkenean urrezko domina eskuratu zuen txapelketako tiraldi guztiak irabazita.

Ekitaldi ugari Alurtxiki Auzo Elkartearen eskutik

URKIZU » Urkizuko Alurtxiki Auzo Elkarteak Eguberriak direla-eta programazio berezia osatu du. Horiek horrela, gaur 20:00etan izango da lehen ekitintza, Edure Pasaban eta Asier Izagirrerren hitzaldia eta argazki emanaldia izango baita Apaizetxan. Ipuin kontaketa ere izango da, Galtzaundiren eskutik, hilaren 26an 17:30etan leku berean. Urtarrilaren 3an 17:00etan ume jolasak, filma eta txokolatada ere izango dira Apaizetxan. Aipatu behar da Alurtxiki elkarteak, Urkizu, Auzo txiki eta Albiturko aizkorrialdeko lagunek osatzen dutela.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2008ko abenduaren 18an egin duen aparteko bilkuran, hasierako onespina eman dio Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko "18. Apattaerrek" hirigintza esparruari dagokion arau partikularraren aldatetari.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, hila bate bat (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.6 artikuluko xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Diario Vascon eta Tolosaldeko Hitza argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra 6-B) egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkatari zuzendu behar zaizkio eta Udalteko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2008.eko abenduaren 18an

ALKATEA

Stua, Jokin Bildarratz Sorron.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Eguberrietako jaialdia

LEITZA ● Erlata eskolako haurrek Eguberri ongi etorria ematearekin batera, 2008ko ikasturtea amaitu zuten iragan ostiralean jaialdi bat ospatuz. Ikastetxeko ikasleen

saioak ikustera guraso ugari elkartu zen. Bertan bizitakoaren hiru adibide www.tolosaldeko-hitza.info web orriaren bidez atalean zintzilikaturik daude. A. IMAZ



Lan baldintza «duinen» alde

TOLOSA ● LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, elkarretaratzeari zuten atzo Tolosako udaletxearen aurrean. Gipuzkoako kiroldagietako langileen lan baldintza

«txarrak» salatzeaz gain hitzarmen orokor «duin bat» eskatu nahi izan zuten. Tolosako alkateari, Jokin Bildarratzi, idatzi bat emateko asmoa ere azaldu zuten. N. URBIZU

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren Gabonetako deialdia

Politika » Bihar, azken ostiralean eta urtarilaren 3an antolatu diren ekitaldietan parte hartzeko gonbita luzatu dute.

ASIER IMAZ

Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Gabonetako data hauek direla eta, preso eta iheslariak elkartasuna adierazi nahi die. Bide batez, antolatu dituzten ekimenetan parte hartzeragonbidatu dituzte herritarrak.

Olentzeroren egunean

AAMk biharko bi ekitaldi antolatu ditu. Olentzeroren egunean, preso eta iheslariak elkartasuna azalduz kantari irtengo dira kalera goizean. 18:45ean, eskualdeko manifestazioa egingo dute urtero bezala Triangulotik irtenda.

Villabonan ere bailara mailako manifestazioa egingo dute bihar. 19:00etan Iru Aldetatik irtenda.

Azken ostiralean

Bi eskualdeetako herrietan ohiko ordu eta lekuetan elkartuko dira hilaren 26ean, hilabeteko azken ostirala izaki. Tolosan, 19:30ean elkarretaratzea egingo dute eta ondoren preso eta iheslarien aldeko Topa.

Urtarrilaren 3an, Bilbon

Etixeratek deitu duen manifestazioarekin bat eginaz, AAMk herritarrek Bilbora gonbidatu ditu, urtarilaren 3an bertan 19:30ean egingo den Nazio Manifestaziora.

Elkartasun Denda zabalik

Tolosan eta Villabonan Gabonetan zabalik edukiko dute Elkartasun denda Korreo kaleko 7an eta Kale Nagusian, hurrenez hurren.



Gabonetako euskal ipuinak entzunaz

LEITZA ● Ixabel Millet ipuin kontalariak Gabonetako euskal ipuinak kontatu zituen atzo liburutegian; laminak nola desagertu ziren, Olentzero nola agertu zen Euskal Herrian, ... Leitzako Udal Liburutegiak antolatutako ekitaldian 50 bat lagun joan ziren. Adin guztietako haur eta helduek, ipuinak entzuteaz gain, ipuinaren zati izateko aukera ere izan zuten. ASIER IMAZ

Txapelketa ezberdinen hainbat final jokatu dituzte leitzarrek

A. IMAZ

Leitzako pilotariak asteburuan partida garrantzitsuak jokatu zituzten.

Nafar Jokoetan finalak

Ez zuten garaipenik lortu leitzarrek, Nafar Jokoen finalean. Sagastibeltza Egues-Ibai Gil eta Jon Iparragirre-Anartz Olanok 11 eta 16an bukatu zituzten partidak, arerioek berriz 18an.

Burlatako Txapelketa

Burlatakoan finala jokatu zuten eta Olano-Hernandorena bikoteak 17-18 galdu zuen Untxaloko Apeztegiaren aurka.

Zaldibarko Txapelketa

Jon Jaunarenak jokatu zuen Zaldibarren eta 18-22 galdu zuen Landabururen aurka.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



ESTEFANIA ZIRAKO GOIKOETXEA ANDREA

Atzo hil zen, 64 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere senarra: Felix Abiega; seme-alabak: Maria Jesus eta Mikel Aingeru; anaia-arrebak: Martin, Maria, Migel, Gregori eta Jose Rivas, Pakita eta Joxe Mari Arocena (†); Gabi, Juan Migel (†); ezkon anaia-arrebak Joxe eta Fernanda Malkorra (†); Martina eta Joxe Mari Luluaga (†); Maria Joxepa eta Xaxiano Ibarburen (†); Ximon, Patxi eta Euxebi Ibarluzea, Migel eta Kontxi Zalakain, Juan eta Nati Lopetegui; ilobak, lehengusua eta gainontzeko ahaideak. Etxekoek haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte.

Hileta GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Anoetako SAN JOAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan egingo da.

Helbidea: Hozpel, 3-2. solairua, 4. atea.

Oharrak: Gorputz Beila Tolosako Funeraria Vascongada Beilatokian dago. Gorputz laguntza gaur, astearte, eguerdiko 12:00etan egingo da.



ANOETA,
2008ko abenduaren 23a

